

## GIPUZKOA

# Ugarte sagardotegiaren gerizpean zilarrezko urteurren arrakastatsua

Joseba Gurutz Ezeiza 'Kaxka'-k egin du txotx-aren irekiera

GOIZARIN | OIARTZUN.

1 junio 2014  
01:41

Urtero legez, maiatzeko azkeneko larunbarekin etorri da aurtengo udaberri jaia. Doneztebe plaza dotore jantzita zegoen atzo zilarrezko urteurrena behar bezala ospatzeko. Horretarako, antolatzaileek gogoz lan egin zuten ostiralean Kontzejupean Ugarte sagardotegia atontzeko, aski ederra eta dotorea. Meta eta guzti ez zuen deus falta. Goiz-goizetik herritarrak hurbildu ziren horrelako baserri puska ikustera, kanpotik nahiz barrutik. Ederra benetan.

Aurtengoa egun osoko festa izan da, Girizia Elkarteko Kultur eta Kirol sailak antolatu duena, Oiartzungo Udala, Ttur-ttur Euskaltzaleon Bilgunea eta herriko taberna eta komertzioen laguntzarekin. Goizeko 11:00etan trikiti jirarekin eman zitzaion hasiera egunari. Gero, Oiartzungo baserrietako sagardo dastaketa egin zen. lazko arrakasta ikusirik II. Sagar Tarta lehiaketa ere antolatu zuten. Ana Lazkanok irabazi du aurtengo edizioa.

### Sagar lehia eguerdian

Eguerdiko 12:00etan Sagar lehia egin zen herriko gazteekin. Herriko eragileek prestatutako jokoak egin zituzten, koadrila arteko lehia hain zuzen.

Arratsaldean 17:30ean haurrentzako puzgarriak, tailerrak eta txokolatada izan zen, Euskal Herria plazan. Gero, 18:00etan eman zitzaion hasiera sagardo dastaketari. XXV. urteurren honetan, lehendabiziko edizioa antolatu zutenekin egin zuten txotx-aren irekiera, Joseba Gurutz Ezeiza 'Kaxka'-k hain zuzen. Oiartzungo plazara bertaratu zirenek 15 sagardotegitako sagardoa dastatzeko aukera paregabea izan zuten.

Gero, afariaren txanda iritsi zen Kontzejupeko Ugarte sagardotegian. Izan ere, udaletxe azpiak sagardotegi itxura hartu zuten lehendabizikoz atzokoan.

Eguraldia lagun, arrakasta osoz ospatu zen, hortaz, XXV. edizioa.



Joseba Gurutz Ezeiza lehen 'txotxa' egin zuen momentuan. / ARGAZKIAK GOIZARIN

DIARIOVASCO.COM Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.

Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 49, Folio 118, Hoja nº 2.900, Inscripción 1ª C.I.F.: A-20004073 Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018. Correo electrónico de contacto contactanos@diariovasco.com

Copyright © Digital Vasca S.L., San Sebastián., 2008. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.), y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.